Zangoza / 2020

# KULTUR AGENDA

## urtarrila



Sangüesa/Zangoza

Palacio Vallesantoro

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Karmengo Entzunaretoa

**SARRERAK SALTZEA**

Aldez aurreko salmenta: **urtarrilaren 7tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Tfnoa:** 948 870 251

**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoan bertan (sarrerarik izanez gero), antzezpena hasi baino ordubete lehenago. **Tfnoa:** 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua seikoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Ikuskizunaren arabera, Udalak lagun bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

**Beherapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz Interneten erosi bada.

**ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA**

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.
Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

**ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO**

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultua@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948870251 telefonora edo adierazi txartel-leihatilan erosketa egiterakoan

## Vallesantoro Jauregia/Kultura Etxea

**Kultura-etxeko Arreta Ordutegia:** astelehenean 9:30etik 14:00etara. Asteartetik ostiralera, 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.
**Erakusketa Aretoko Ordutegia:** asteartetik larunbatera, 19.00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12.00etatik 14:00etara.
**Urtarrilaren 1ean, 6an eta 20an Kultura-etxea itxita egonen da.**
**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251
Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: **infocultura@sanguesa.es**.
Facebooken eta **www.sanguesacultura.es** web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu:

www.facebook.com/culturasanguesa

www.instagram.com/culturasanguesa

**Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.**

D.L.: NA 1735-2012

Zangoza / 2020

# KULTUR AGENDA

## urtarrila

aurkibide kronologikoa







| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | Az | Erakusketa “Doblando papel, desplegando la mente” (urtarrilaren 5a bitarte) | 4. Orr. |
| | Az | Erakusketa “Eguberriko haur-lanak” (urtarrilaren 5a bitarte) | 4. Orr. |
| 2 | Og | | |
| 3 | Os | Hiru erregeen laguntzaileen harrera | 6. Orr. |
| 4 | La | | |
| **5** | Ig | Erregeen Kabalgata | 6. Orr. |
| **6** | Al | Misterio de Reyes Autoa | 6. Orr. |
| 7 | As | | |
| 8 | Az | | |
| 9 | Og | | |
| 10 | Os | Erakusketa “Sueño de marionetas” (otsailaren 2a bitarte) | 4. Orr. |
| 11 | La | | |
| **12** | Ig | | |
| 13 | Al | | |
| 14 | As | | |
| 15 | Az | | |
| 16 | Og | | |
| 17 | Os | | |
| 18 | La | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 7. Orr. |
| | La | “Urrezko Potxa”ren eta Argazki-lehiaketaren sari-banaketa | 7. Orr. |
| **19** | Ig | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 7. Orr. |
| | Ig | Lau t’erdiko Pilota Txapelketa | 10. Orr. |
| 20 | Al | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 8. Orr. |
| | Al | Zinea. “Spider-Man lejos de casa” | 5. Orr. |
| 21 | As | | |
| 22 | Az | Ipuin kontalaria. “Txotxongiloren ametsak” (euskera) | 6. Orr. |
| 23 | Og | Mendi Astea. Proiekzioa “Munduan zeharko bilaketa etsia, izotzetan bide berriak aurkitzeko” | 9. Orr. |
| 24 | Os | Mendi Astea. 2019ko BMFFen pelikula saritua | 10. Orr. |
| 25 | La | Antzerkia eta musika. “El funeral” | 5. Orr. |
| **26** | Ig | Familia-eskalada | 10. Orr. |
| 27 | Al | Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 8. Orr. |
| 28 | As | | |
| 29 | Az | Ipuin kontalaria. “Sueños de marionetas” (gaztelania) | 6. Orr. |
| 30 | Og | Mendi Astea. Proiekzioa “Mendiko eskia Pirinioetan” | 9. Orr. |
| 31 | Os | Mendi Astea. BMFFen pelikula saritua | 10. Orr. |

Azaleko irudia: Corrado Masacciren txotxongiloak.

**ZANGOZAKO UDALEKO KULTURAREN ALORRETIK BAKEZ ETA ELKARTASUNEZ BETERIKO URTE BAT OPA DIZUEGU ETA 2020A KULTURAZ BETERIK ETOR DADILA**

# Erakusketak



Argazkia: Alberto Elizalde

## "DOBLANDO PAPEL, DESPLEGANDO LA MENTE". ANNA ELIZALDE

**Origami**

### URTARRILAREN 5A BITARTE

Badira bost urte Anna Elizaldek origami egiten dituela. Bideo-tutorialekin hasi zen eta tolestaketaren zenbait diziplinatan aritzen ikasi zuen eta berak sentitzen du zerbait garrantzitsua eman dutela bere bizitzari. Horregatik, uste du partekatu behar duela. Aurkezten duen erakustaldian, tarte horretan ibilitako bidearen emaitzaren zati bat dago.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



## EGUBERRIKO HAUR-LANEN ERAKUSKETA

### URTARRILAREN 5A BITARTE

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

**Laguntzaileak:** Otik 3 urtera bitarteko Zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa, Zangozako Ikastola eta Luna Haur-zentroa.



## "SUEÑO DE MARIONETAS". CORRADO MASACCI

### URTARRILAREN 10ETIK OTSAILAREN 2RA

Mitoaren, artearen eta onirikoaren artean mugitzen da erakusketa hori. Ametsen espazioan mugitzen diren estetika ezberdinen harizko txotxongiloak. Antzinako mitoak, denborak eta ametsek gorputza hartu duten irudiak txotxongilo hauen bidez. Erakusketa artista ameslari guztiei egindako omenaldia da, non txotxongiloek irudimenaren hariak askatzen dituzten.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Bisita-ordutegia:** asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

# Arte eszenikoak
## Carmengo entzunaretoan




**ANTZERKIA ETA MUSIKA**
**"El funeral"**
TEATRO CHE Y MOCHE

### URTARRILAK 25, LARUNBATA

**Testuaren egile eta zuzendaria:** Joaquin Murillo.
**Antzerkilariak:** Teresa Polyvka, Joaquin Murillo, Fran Gazol edo David Sanchez eta Kike Lera.
*"El funeral"* ikuskizunak 12 urte bete egin ditu dagoeneko. Madrilgo Gran Vía delakoan egin du denboraldia eta Edinburgo, Aurillac, La Habana edo Kiev bezalako jaialdi garrantzitsuetan izan da. Bira anitz egin ditu, nazionalak eta nazioartekoak, baita 800 emanaldi baino gehiago ere. Ikuskizun honetan, musikari zingariar talde batek bere aitona Dimitriren hileta ospatzera gonbidatzen du publikoa. Dena egoera harrigarrien nahaspila bihurtuko duen trama xume bat, non pertsonaia leherkorrek, birtuosismo musikalak eta publikoarekiko elkarrekintzak hileta hau ahaztezina den jai sinestezin bihurtzen duten. Ikuskizun alai eta lotsagabea, umorez, musikaz eta barrez betea.
**Ikusleak:** gazteak eta helduak.
**Ordua:** 20:00.
**Iraupena**: 105 minutu .
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €
**Sarrerak gazte txartelarekin:** 5 €. Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua

# Zinea



**"Spider-Man lejos de casa"**

### URTARRILAK 20, ASTELEHENA

Peter Parkerrek merezitako oporrak Europan igarotzea erabaki du, MJ, Ned eta gainerako lagunekin batera. Peterrek, ordea, Spider-Man jantzia jantzi beharko du Nick Furyk beste misio bat agintzen dionean: kontinentean kaosa eragiten ari diren izaki batzuen erasoa geldiaraztea.

**Ikusleak:** 7 urte baino gutxiagoko haurrei ez gomendatuta. 9 urtetik beherakoek helduek lagunduta joan behar dute.
**Ordua:** 17:00. **Iraupena:** 129 minutu.
**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Ipuin kontalaria txotxongiloekin



**"Sueños de marionetas"**
CORRADO MASACCI

**URTARRILAK 22, ASTEAZKENA (EUSKARAZ)**

**URTARRILAK 29, ASTEAZKENA (GAZTELANIAZ)**

Kultura-etxean ikus daitekeen txotxongilo bildumaren sortzaile den Corrado Masacci izango dugu, "Txotxongilo ametsen" mundura eramango gaituzten istorioak kontatuko dizkiguna.

**Ikusleak:** 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat. Umeei helduek lagundu behar diete.
**Ordutegia:** 18.30etik 19:30era
**Sarrera:** Doan.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Gabonetako eginkizunak



**HIRU ERREGEEN LAGUNTZAILEEN HARRERA**

**URTARRILAK 3, OSTIRALA**

**Ordua:** 17:30.
**Lekua:** Irteera Prautik eta harrera Arkupeetan, korneta eta danborren Bandak lagunduta.
**Antolatzailea:** Kabalgataren Batzordea.



**ERREGEEN KABALGATA**

**URTARRILAK 5, IGANDEA**

Korneta eta danborren Bandak Karrika Nagusia jeitsiko du 19:00etan.
**Ordua:** 19:30.
**Antolatzailea:** Kabalgataren Batzordea.



**MISTERIO DE REYES AUTOA**

**Egilea: Aita Jose Legarda (Kaputxinoa)**

**URTARRILAK 6, ASTELEHENA**

**11:30ean:** Misterio de Reyes Autoaren antzezpena.
**12:30ean:** Santiago Elizan Errege Meza Zangozako "Virgen del Rosario" Auroroen Elkarteak abesturik.
**Antolatzailea:** Misterio de Reyes Elkartea.

# ZANGOZAKO JAIAK

## San Sebastianen ohoretan



### URTARRILAK 18, LARUNBATA

**18:00etan:** Udaletxearen gibeleko balkoitik, San Sebastianen ohoretan antolatu ekitaldiak iragarriko dituen suziria. Zangozako Gaiteroek eta “Juan Francés de Iribarren” Musika Eskolako Bandak eginkizuna girotuko dute.

**18:30ean:** Haurrendako txokolatada Arkupeetan.

**19:30ean:** Sari-banaketa Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoan. “Zangozako Jaiak 2019” IV. Argazki-lehiaketa eta 2019ko Zezen-feriaren “Urrezko Potxa”.

**20:00etan:** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

**21:30ean:** “Subidica” Eskartxa txarangarekin.

**22:00etan:** Herri-afaria Kiroldegian.

**01:00etik 02:30era:** “Bajadica” eta errondan Eskartxa txarangarekin.



### URTARRILAK 19, IGANDEA

**11:30ean:** Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera.

**11:30etik 14:30era**: Jota erronda Zangozako karriketatik. Irteera eta festa amaiera Arkupeetan.

**17:30ean:** Lau t’erdiko Pilota Txapelketaren finala. Haur, gazte-kadete eta senior mailetako finalak Cantolaguako Pilotalekuan. Ondoren, txapelak eta sariak banatuko dira. Pilota Eskolaren aurkezpena eta janaurreko pilotazalea.

**18:00etan:** Gurpildun zezenak kale Nagusian.

**20:00etan:** Dantzagarriak Zangozako Gaiteroekin Arkupeetan.

**21:00etan:** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

# ZANGOZAKO JAIAK
San Sebastianen ohoretan



## URTARRILAK 20, ASTELEHENA

**7:00etan:** Auroroen irteera.

**9:00etan:** Dianak Udal-banda Elkartearen eta Zangozako Gaiteroen eskutik.

**11:30ean:** Zangozako Udala - Bandera, Mazukariak, Zangozako Udalaren Banda Elkartea, Erraldoi eta Buruhandien Udal-konpartsa, Gaiteroak, Rocamador Dantzari Taldea eta Zangozako Txistulari Taldea-lagun dituela, Santiago elizara joanen da San Sebastianen Prozesioan esku hartzera. Jarraian, Meza Nagusia Zangozako Auroroekin.

**13:00ean:** Ogi-mamiak dastatzea Arkupeetan.

**17:00etan:** "Spider-Man lejos de casa" filmaren proiekzioa Karmengo Entzunaretoan.

**19:00etan:** Dantzagarriak Zangozako Gaiteroekin Arkupeetan.

**20:00etan:** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

**Laguntzaileak:** Zangoako Gaiteroak, "Juan Francés de Iribarren" Musika Eskola, Rocamador Dantzari Taldea, Zangozako Txistulari Taldea, Erraldoi eta Buruhandien Udal-konpartsa, Zangozako Udalaren Banda Elkartea, Zangozako Auroroak eta Eskartxa txaranga.

# Musika Eskola



### ZANGOZAKO "JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN" MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUAK

## URTARRILAK 27, ASTELEHENA

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

# Mendiari buruzko jardunaldiak





## PROIEKZIOAK VALLESANTORO JAUREGIAN

**“Munduan zeharko bilaketa etsia, izotzetan bide berriak aurkitzeko”**
CECILIA BUIL

### URTARRILAK 23, OSTEGUNA

Bi hemisferioetako neguetara bidaiatzean eta berotze globalagatik saihestu dituen zailtasunen aurrean, Ceciliak arazo hauen dibulgazioan aurkitu du klima-aldaketaren aurrerapen lasterrari buruz kontzientziatzeko modua, aldi berean, naturak eskaintzen dizkigun izoztutako mirariak erakutsirik. Txile, Turkia, Hegoafrika, Zeelanda Berria eta Kanada, proiektu honen helmugak dira, 2014an hasi eta aurten bere etxetik hurbil amaitzea espero duena. Izotzeko eskalada HuEllas-en protagonista nagusia da, ingurune galkor eta aldakorra. Kontatuko digu nola bere bizitzan, eskalatzaile bezala, funtsezko bihurtu zen ia beharrezko ikastaldi baten ondotik, Karakorum-eko paretak ezagutu eta gero.
**Ordua:** 20:00
**Doako sarrera** edukiera bete artean (72 eserleku).



**“Mendiko eskia Pirinioetan”**
FIDEL MENDIA

### URTARRILAK 30, OSTEGUNA

Gure lurretik hurbilen dauden Pirinoetako mendietatik ibilbide bat; Otal-eko tontorretik Oriko tontorrera, eskiatu "desberdinak" mendi ezagunetan. Zuzenean komentatutako argazkia eta bideoa. 50 minutu. Fidel Mendia, Iruñean jaiotariko alpinista polifazetiko hau, hainbat espediziotan izan da partaide, Yosemiten, Alpeetan, Kaukason eta Himalaian eskaladei ekinez. Mendiko argazkigintzaren zale amorratua eta jarduera horregatik hainbat lehiaketetan saritua izan da. Azken urteotan, 'free ride' delako muturreko eskian espezialitatu da. «Alpeetan ezezik, Europaren ekialdean ere elur asko dago eta oso ona», dio.
**Ordua:** 20:00.
**Doako sarrera** edukiera bete artean (72 eserleku).

**Antolatzailea:** Zangozako Udalaren Kirol Patronatua.
**Laguntzailea:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea.

# Mendiari buruzko jardunaldiak

## FILMAK KARMENGO ENTZUNARETOAN

### Film saritua 2019ko BMFFEN (Bilbao Mendi Film Festival)

Proiekzioa zehaztuko da BMFF 2019 behin igarota eta 2019ko Bilbao Mendi Film Festivalen filmak hautatu eta gero.

**URTARRILAK 24, OSTIRALA**

**Ordua:** 20:00.
**Sarrerak:** 3 €.

### Film saritua 2019ko BMFFEN (Bilbao Mendi Film Festival)

Proiekzioa zehaztuko da BMFF 2019 behin igarota eta 2019ko Bilbao Mendi Film Festivalen filmak hautatu eta gero.

**URTARRILAK 31, OSTIRALA**

**Ordua:** 20:00.
**Sarrerak:** 3 €.

**Antolatzailea:** Zangozako Udalaren Kirol Patronatua.
**Laguntzailea:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea.

# Kirol ekitaldiak



### Lau t'erdiko pilota txapelketaren finala

**URTARRILAK 19, IGANDEA**

Haur, gazte-kadete eta senior mailak. Ondoren, txapelak eta sariak banatuko dira. Pilota Eskolaren aurkezpena eta janaurreko pilotazalea.

**Ordua:** 17:30.
**Lekua:** Cantolagua Pilotalekua.
**Antolatzailea:** Cantolagua Kirol Elkartearen Pilota Saila.
**Babesle eta laguntzailea:** Zangozako Udalaren Kirol Patronatua.



### Familia-eskalada

**URTARRILAK 26, IGANDEA**

**Ordua:** 11:00etatik 13:30era.
**Lekua:** Udal-kiroldegia.
**Antolatzailea:** Sargantanak Eskalatzaileak.
**Babesle eta laguntzailea:** Zangozako Udalaren Kirol Patronatua.